



Donostiako Udala  
Ayuntamiento de San Sebastián

Adiskide hori, agur:

Duela egun gutxi, azaroaren 17an, Donostiako Udalaren politika orokorrari buruzko eztabaida izan genuen Donostiako Udalbatzarrean.

Aipatu udalbatzarrean gure taldeak zaldu zituen iritzien berri zuzena izan dezazun, eskutitz honekin batera doakizu EAJ/PNV-EA taldearen izenean eman nuen hitzaldia.

Badakizu zernahitarako zuen esku gaituzuela. Eskerrik asko.

Estimado conciudadano/a.


Recientemente, el 17 de noviembre, en sesión plenaria se desarrolló el debate sobre política general del ayuntamiento de Donostia.

Para que conozcas de primera mano las opiniones expresadas por nuestro grupo en el pleno señalado, os remitimos la intervención que en calidad de portavoz del grupo EAJ/PNV-EA realicé en dicho pleno.

Sabes que nos tienes a tu disposición. Recibe un cordial saludo.

Donostia, 2004ko azaroak 22

  
Roman Sudupe Olaizola  
EAJ/PNV-EA taldearen bozeramalea



Zinegotziak - Concejales y Concejales

Jaione Arratibel (EA), Patxi Baztarrika (PNV), Pilar Elgoibar (Independiente PNV), Xabier Ezeizabarrena (Independiente PNV), Jokin Ezkerro (EA), Harkaitz Millan (EA), Joakin Telleria (PNV), Mikel Ubillos (EA)



Donostiako Udala  
Ayuntamiento de San Sebastián

## **DONOSTIAKO UDALAREN POLITIKA OROKORRARI BURUZKO EZTABAIDA**

2004ko azaroaren 17a

Roman Sudupe, EAJ/PNV-EA taldeko bozeramailearen  
hitzaldia



Zinegotziak - Concejales y Concejales





Donostiako Udala  
Ayuntamiento de San Sebastián

## UDALAREN POLITIKA OROKORRARI BURUZKO EZTABAIDAN ROMAN SUDUPEK EGINIKO HITZALDIA

Gaur da aurreneko aldia Udalaren politika orokorrari buruzko eztabaida bat izaten duguna. Udalgintzan urte eta erdi aritu eta gero. Aurreneko aldia izateak bi eginkizun jartzen dizkio gaurko eztabaidari: udal gobernuaren balantzea eta ebaluazioa egitea, alde batetik, eta etorkizuneko ekintza-lerro nagusi batzuk proposatzea, bestetik.

Segitutik esango dut, ordea, kezka betetako begiratu dela hiriari eman diogun begiratu, eta kritikoa alkatearen nahiz udal gobernuaren jardunari eman dioguna, baita oso kritikoa ere, esango nuke, alkatearen eta udal gobernuaren estiloari eta talanteari dagokionean.

Begi bistan dago gauzak ez direla ondo joan Udalean azkeneko urte eta erdi honetan. Alkatearen gobernu estiloak —praktikatzen duenak esan nahi dut, ez baitu han eta hemen predikatzen duenaren antzik— bi ezaugarri nagusi izan ditu: elkarrizketa ukatzea eta akordioak eta kontsensuak lortzeko gauza ez izatea. Hala erakusten dute hemezortzi hilabete hauetako gertaerek. Eta esan gabe doa arazo handia dakarkiola estilo horrek hiriari. Alde horretatik, gu seguru gaude ziklo baten amaiera ikusten ari garela, zeren, alkateak etengabe erakusten duen talante istilu-zale hori —talante zaharkitua benetan— hemen ere iraganera pasatuko baita denbora asko baino lehen.



## Eman diezaiogun begiratu bat hiriari

Abiapuntu gisa, esan dezagun orain urte batzuk baino hiri erakargarriagoa dela, oro har, gure hiria. Begi bistan dago gauza batzuk hobeto daudela orain urte batzuen aldean. Bizi maila handiko hiria daukagu, eroso bizitzeko. Urte hauetako udal-gobernu ezberdinen jarduna baliagarri izan da horretarako.

Baina, Donostia guztiak ez du bilakaera bera izan. Badaude gora-behera batzuk, bai gizarte aldetik, bai lurralde aldetik. Gizarte aldetik, Donostia ez delako bizileku eroso pertsona guztientzat, hiri garestia baita, "ezinezkoa" jende askorentzat. Eta lurralde aldetik, gauzak ez direlako neurri berean hobetu Donostia guztian, auzo askotako bizi-mailak ez baitu antz handirik "parerik gabeko markoarekin", nahiz eta auzo horiek ere Donostia diren. Horregatik, oso garrantzitsua da geure burua zurrizteko tentaldian ez erortzea, jokabide kontserbadorea eta loak hartzekoa baita hori, aurrera egin eta erantzun berriak, bikainak eta erabakigarriak ematea galarazten duena "parerik gabeko markoaren" atzean ezkututzen diren arazoei.

Zahartze prozesu kezkarrian sartuta dago gure hiria. Azkeneko 12 urte hauetan, esate baterako, 19 urtez behetikoen pisuak 7 puntu egin du behera (biztanleriaren %16 dugu gaur egun), eta 65 urtez gorakoen pisuak, berriz, ia 5 puntu egin du gora (donostiarren %20 dugu orain). Eta etorkizunerako proiektioek ere bide beretik segitzea aurreikusten dute.

Biztanleriaren zahartze hori arazo kezkarria da; faktore batek baino gehiagok sortua, denok dakigun bezala. Berez ere arazo larria den hori, ordea, are larriago bihurtu da, etxebizitza eta lan arloan egin den politikan ez delako behar adina egin edo egin dena ez delako eraginkorra izan. Etxebizitzak duen prezioak hiritik kanpora botatzen du Donostiako gazte asko eta asko, eta lantegitarako lurraren prezioak ere ez du gazteentzako behar adina lan



Donostiako Udala  
Ayuntamiento de San Sebastián

sortzeko modurik uzten, batez ere lanbide eta unibertsitate mailako prestakuntza duten gazteentzat. Ondo prestatu eta gaitutako pertsonak galtzeko arrisku garbia du gure hiriak. Gazteak "kanpora botatzeko" prozesu bikoitz horren ondorioa ikaragarria izan daiteke epe ertainera, biztanleria zahartzea eta gizartearen dinamismo falta besterik ez du ekarriko eta.

Plan Orokorra berritzeko dokumentuaren arabera, ohore triste bat du gure hiriak: buru-buruan dago etxez aldatzeko premia duten familien zerrendan. Donostian, familien %9,13k du etxez aldatzeko premia, eta Euskal Autonomia Erkidegoan, %5ek, batekoz beste eginda. Etxebizitzaren prezioak azkenaldi honetan izan duen igoera izugarriak erabat larritu du hiritar askok eta askok bere hirian etxebizitza bat izateko modua, nola erosita eta hala errentan hartuta.

Lehenbiziko etxea izateko premia duten pertsonen erdia baino gehiago 25-34 urte bitartean dago. Pentsatzekoa da horietako askok eta askok bere hiria utzi eta beste herri batzuetara jo beharko duela beharrezkoa duen etxebizitza bila, eta, jakina, geroz gehiago zahartuko da Donostia horrela.

Egitura ekonomikoaren datuei begiratuz gero, berriz, garbi ikusten da Donostiako barne produktu gordina —biztanleko aterata— Euskal Autonomia Erkidegoan den batez bestekoa baino txikiagoa dela, eta gainerako hiriburuak eta Gipuzkoa batez besteko horretatik gora daudela. Eta horri guztiari Donostiako biztanleriaren %15ek goi mailako tituluren bat duela eta gaur egun 20.000 gazte baino gehiago dela unibertsitatean edo lanbide heziketan ikasten ari dena erantsiz gero, errez ondorioztatu daiteke balio erantsi handiko jarduera ekonomikoak erakartzeko moduko lur eta azpiegitura eskaintza falta horrek zer ekarriko duen: gazte askok eta askok beste toki batzuetara alde egin beharra, duen prestakuntzaren eta itzaropenaren araberako lan bila.

Hiriari begirada bat ematerakoan nahitanahiezkoa da oraindik ere eginkizun nagusi izaten jarraitzen duen arazoaz hitz egitea: bakeaz, alegia. Gure hiritik terrorismoa, mehatxua eta estortsioa desagertarazteko, eta intolerantzia hondoratzeko lana egiteak izan behar du Udalaren lehen helburua, ahalik eta azkarren bakean eta elkarrizketan oinarrituriko elkarbizitza izan dadin gurea.



Donostiako Udala  
Ayuntamiento de San Sebastián

### Egin dezagun udal politiken gestioaren balantze bat

Gaurko hitzaldia egiteko jarrita daukagun denborak ez dit uzten udal gobernuarekin bat egin dugun erabakien gainean luze hitz egiten. Edozein moduz ere, garbi esan nahi dut hor daudela gertaera asko eta asko, udal gobernuak gure taldeari leporatzen dion blokeo eta desadostasun politika ustezko hori erabat gezurtatzen dutenak. Esate baterako, agintaldi honetan orain arte izan diren udalbatzar guztietan hartu ditugun erabaki guztietatik, %62tan udal gobernuak eman duen boto berbera eman du EAJ-EA udal taldeak ere. Etxebizitza politika egiteko behar izan diren ia gai guzti-guztiak EAJ-EA taldeak aldeko botoa eman duelako atera dira aurrera.

Arrazionaltasun handiagoko irizpideak sartzea lortu dugu udalaren zerga eta tasetan, nola 2004koetan hala 2005ekoetan. Garbi erakutsi dugu badagoela modua beste era bateko aurrekontu politika bat egiteko, hiriarentzat hobea eta udalaren diruak ondo eramateko modukoa.

Eta balio handia ematen diogu batez ere denbora askoan ez atzera eta ez aurrera zeuden gai inportante batzuk zeuden atakatik ateratzeko egin dugun ekarpenari. Alde horretatik, bereziki nabarmenduko nuke Auditiz-Akulargo antolaketa, gure taldearen eta gobernu taldearen artean lortutako akordioari esker atera baita aurrera. Garbi ikusi da beste hirigintza modu batzuk ere bazirela Auditiz-Akularrerako, lehen proposatzen zutena baino ere hobek batzu-batzuk.

Natorren, ordea, gobernuaren jardunari buruzko balantzea egitera. Nahikorik ere merezi ez duen jarduna da, guretzat, gobernuaren jarduna; izan ere, Donostiako gizarteak dituen eskariei erantzuteko ekintza *eskasegiak* baitira gobernuak egin dituen ekintza batzuk, eta *oso-oso eskasak* beste batzuk, etika demokratikoaren politikari eutsi eta politika horretan aurrera egite aldetik.



Donostiako Udala  
Ayuntamiento de San Sebastián

Ez ditut udal gobernuak egindako politika guztiak aipatuko. Aurren aurrena, etxebizitzaz arituko naiz. Ez naiz demagogian ereriko. Badakit arazo konplexua dela etxebizitzarena, eta horren konponbidea ez dagoela, ezta gutxiago ere, udalaren eskuetan bakarrik. Baina ez dago ukatzerik beste era batera ere egin ditzakeela gauzak Udalak, eta, egoeraren larritasuna ikusirik, bistan dago beste era batera egin behar direla gauza horiek.

Eta ez du balio Auditiz-Akularren aitzakia hartzea gai honetan udal gobernuak dituen gabezia nabarmenak estaltzen saiatzeko. Eta ez bakarrik gehiengorik izan ez eta gutxiengoan gobernatzeko ardura hartzen duenaren obligazioa amore eman behar den gauzetan amore ematea delako —baldin eta proiektuak aurrera aterako badira behintzat—, baizik eta baita Auditiz-Akularreko etxebizitzaz aparte beste 8.000 etxebizitza egitea ere aurreikusten zuelako 1995eko Plan Orokorrak, oraindik ere egin eta merkatuan jarri gabe daudenak nahiz eta zortzi urte pasa diren ordutik gaur arte.

Nik uste dut ia hamalau urte ilaran alkate daramatzanak ere izango duela zerbaiten erantzukizunen bat herritarren eskubide bat —etxebizitza bat izatea, alegia— gure hirian pribilegio bihurtzean. Gure ingurumari guztian diren etxebizitzarik garestienak eta lehenbiziko etxebizitza eskaerarik handiena hemen izateak dakarren ohore tristeak erakusten du Udalak erabili duen politika ez dela, kasurik onenean ere, nahikoa, zeren, Plan Orokorra berritzeko dokumentuak berak ere jartzen duenez, “nekez ase daiteke Donostian ikusten den eskaria oraingo politika motarekin”. Beraz, beste bide bat hartu beharra dago; izan ere, ez babespeko etxebizitza da nahikoa Donostian dagoen eskaerari erantzuteko, ez etxebizitza librea da babespeko etxeak eskuratzeko baldintzak betetzen ez dituen jende sail handi batek eskuratzeko modukoa, eta, edozein moduz ere, babespeko etxebizitza eskaintza bera ere txikiegia da.

Etxebizitzaz aparte, auzoez ere hitz egin nahi dut. Desoreka handia dago erdialdearen eta kanpoaldearen artean. Altzan, Larratxon, Herreran, Loiolan, Martutenen, Bidebietan... asko ari da atzeratzen hango bizilagunei ere tokatzen zaien ahalegin berezi bat egiteko unea. Auzo horiek dituzten egitura arazoek, barruko eta kanpoko bide faltak, dentsitate handiak eragindako

5





Donostiako Udala  
Ayuntamiento de San Sebastián

aparkaleku eskasiak edota jolas eta aisialdiko gune ezak —auzo batzuetako oinarritzko urbanizazio gabezia nabarmenak ez aipatzeagatik— osoko birgaitze plan bereziak eskatzen dituzte, gehitxo atzeratzen ari diren plan bereziak.

Beste alde batetik, esan nahi dut Gazteria nahiz Gizarte Zerbitzuetako ordezkartzetan egin diren berrantolaketak aukera onak zirela, baldin eta alperrik galdu ez balira, Berdintasun eta elkartasun zinegotzigo bat sortzeko, zinegotzigo bakar batek diseinatu eta sustatzeko —zeharkako ikuspegiarekin, betiere— hainbat arlotako politikak: giza eskubideak direla, sexua edo sexu orientabidea dela eta izaten diren desberdintasunen kontrako politika dela edo inmigrazio eta lankidetzaren politika dela.

Nabarmendu beharrekoak ditut, bestalde, garraio publikoaren politikak. Gai zabal-zabala da. Gaur aipatu besterik ez dut egingo azken urte eta erdi honetan behin eta berriro egiaztatu ahal izan dugun kontu bat: tranbia ez dagoela alkatearen lehentasunen artean.

Bien bitartean, mugikortasun ikerketek erakusten dutenez, motordun joan-etorriak gehituz doaz Donostian, eta garraio publikoak ez dio gaina hartzen. Oso bestela, autobus publikoak gutxiago erabili izan dira azken lau urteotan. Kostuak, ordea, gora eta gora doaz, erabiltzaileek ordaintzen dituzten prezioak ere gero eta gorago, KPI gaindituta, doazen moduan. Zalantzarik gabe, motordun joan-etorriak gehitu bai baina garraio publikoa horien kargu egiten ez den neurrian, oso bestela gertatzen baita, herritarren intereserako beharrezko diren jasangarritasun irizpideak betetzea arriskuan egongo da. Horra hor zergatik kezkatzen gaituen gobernuak tranbia ezartzea behar bezain irmo ez bultzatzeak.

Begi zorrotzez so egiten diegu kultur ekipamenduei ere. Zinez espero eta nahi dugu hutsik gabe eta anbizioz beterik, benetan berritzaile izateko asmoz Tabakalerako proiektua gauzatzea, nazioarteko erreferentzi zentroa izateko moduko berezitasunez hornitzeko. Tabakalera aukera paregabea da gure hiria europar esparruan erreferentzia punta-puntakoa bihurtzeko. Ez dugu



Donostiako Udala  
Ayuntamiento de San Sebastián

alferrikaldu edo kolokan jarri behar protagonismo keriatatik, argazkian aurreneko agertu nahiagatik. Horrelako zedozer sumatu dugu, eta horrek kezkatu egiten gaitu. Donostiak intereseko du —eta, hargatik, udal gobernuaren helburu izan behar du— erakunde arteko errespetuzko harremana eta adostasuna elikatzea, horrelakoen bitartez gauzatuko delako Tabakotegia benetan.

Zorroztasun bera darabilgu gobernuak kirol instalazioak mantentzeko gestioari begiratzeko, gauza jakina delako egoera kezkarrian daudela. Gobernuak utzikieriaz jokatu du alor horretan, instalazio horien arduraren Udalarena baino ez izanik, ez zegoelako zertan horrelako egoera batera heldurik. Halaber, ez zegoen zertan Kirol Patronatuaren barneko antolamenduan halako gainbeherako egoerara heldurik.

Bestalde, ez deritzogu nahiko eta egoki herritarrek telekomunikazio zerbitzu aurreratuak eskuratzeko azpiegiturak berri eta prestatzeko politikari. Plan Estrategikoan jasotako orientabide oinarritzokoetako batek iradokitzen duenez, Donostiak erreferentzi hiria izan behar du berrikuntzan, zientzian eta teknologian. Hartarako, tresnak behar dira, eta haien artean lehen puntakoa da Miramongo Teknologia Parkea. Gauzak horrela, okerra iruditzen zaigu Parkearen kapital gehikuntzan parte hartu ez izana.

Kezkatu ere egiten gaitu Donostiak metatu duen atzerapenak, Gipuzkoako hiri eta herri ertainen aldean zein Bilboren zein Gasteizenean, kable eta zuntz optikoak hedatzeri dagokionez, haien bitartez donostiar herritarrek telekomunikazio zerbitzu aurreratuarentako sarbide ona izan dezaten. Zabaltzen hasi eta handik sei urtera, udal batzuek bidea errazteari esker, gipuzkoar udalerriri askok, gestioak Donostiarekin batera edo are beranduago hasi arren, kaleetan kableak jartzen amaitu dute, edo lanak oso aurreratuta dituzte, Bilbon, esaterako, etxebizitzetan %59,2k kableari lotzea dute. Donostian, ordea, kableari etxebizitzetan %27,9k besterik ezin dute loturirik egin. Beste udalerrietan ez bezala, ageri-agerikoa da, hemen udal gobernuak ez diola behar besteko kasurik eman gaiari, nahiz eta Udalak eragilearena jokatu behar lukeen Donostia telekomunikazio azpiegiturarik onenez eta aurreratuenez hornitzeko.

7



Donostiako Udala  
Ayuntamiento de San Sebastián

Kezkatzen gaituen beste hutsune bat: udal gobernuak ez du pausorik eman Donostialdeako metropolia eratzearen alde, Donostiari dagokion arren bere metropolia eraiki eta garatzea.

Gestioari dagokionez, azken urte eta erdi honetan bestelako ekimenik ere izan da, eta haiek garatzerakoan edo ezin zurrizteko moduan atzeratuta doaz edo udal gobernuak, besterik gabe, ez ikusia egi die, Udalbatzarrak onarturiko ekintzak diren arren. Batzuk aipatuko ditut. Merkataritzako Kontseilua oraindik ez da eratu. Iztuetako biaduktua botatzeko ikerlanik gabe dugu, Udalbatzak duela 15 hilabete haiek agintzea onartu zuen arren. Amaran eraiki ahal eta behar den parkerik handiena, Karlos I.aren biaduktua kentzea, zain dago oraindik. Udal Gobernuak ez du inolako pausurik eman Igeldoko Tokiko Erakunde Txikiagoa eratzeke, nahiz eta urtebete joan den Udalbatzak hartarako gestioak egitea onartu zuenetik. Horra hor gobernu gestioan defizita erakusten duten adibide batzuk.

### **Gehiengoaren gobernu baten alde. Gobernu ekintzan jarduteko estiloaz eta modua hizpide**

EAJ-EA taldeko zinegotziek beti egin dugu apustu hirirako gobernu sendoa eratzearen alde, udalari egonkortasuna emateko gai den gehiengoaren gobernu bat, Donostia gaztetzeko ezinbesteko proiektuetan aitzindari izateko gauza dena, gure hiria europar esparruan punta-puntakoa eta bere pisuaren jabe egingo duena. Faltan nabaritzen ditugu lidergoa, anbizioa, ideia argiak eta epe ertainean hiria eraldatzeko indarraren jabe diren proiektuak. Inguruko hiriekin alderatuz gero, gurean eraldatze eta etorkizun proiektu aurreratuak falta dira. Etsairik handienak ditugu barnelilura eta biktima moduan agertzea. "Inguru paregabea" ona da, baina ez da nahikoa etorkizuna irabaziko badugu; potentziala da baina potentziala denez, garatu beharrekoa da. Hargatik, behar-beharrezkoa da gobernu sendo bat. Gaur egun, ordea, hirian diren garabi garrantziko bakarrak Loiola ibarrean eta San Martin merkatuan daude,

8



Zinegotziak - Concejales y Concejales



Donostiako Udala  
Ayuntamiento de San Sebastián

eta, bigarren horretan, atzera ere, gure arkitektura ondarearen zati bat galdu dugu.

Donostiarrek hauteskundeetan burutza eskuan jarri zioten alkatea buru duen talde sozialistari, baina ez zion gehiengorik eman. Gu bigarren geratu ginen, zinegotzi bat gutxiago dugula. Hauteskunde egunaren biharamunetik Elorza jaunari eskaini genion gobernu itun serio bat eratzea, hau da, programa akordioa eta gobernu ardurak banatzea. Joan-etorri batzuen bueltan, lana banatzea eskaini zigun (delegazioak, hain zuzen ere), Gobernu Batzordean bozka eskubiderik gabe. Halaxe Zapatero jauna Moncloara heldu zen arte.

Gerokoan, urtebeteren buruan, gobernu ituna negoziatzea proposatu zigun. Negoziatzeko eskaini nizkion programa eta funtzionamendu oinarriek ez dute alkatearen negoziazio saio izpirik ere jaso. Negoziazio serio bat esploratu beharrean, "ezetz" erantzun du, hiru baldintza bete ezinetan kamuflaturik. Auditiz-Akular eta zaborrei buruzko bere proposamenei "amen" esatea eta Eusko Jaurlaritzarekin berak daukan sestran laguntzaile izatea esijitu digu. Bete-betean frogaturik geratu da bere proposamena marketing hutsa zela, eta bere benetako aukera, nahiz eta aitortu ez, hasiera-hasieratik gutxiengoaren gobernua izan dela.

Hori ez da batere aukera ona hiriarentzat. Baina txarragorik ere bada: gutxiengoan gobernatu nahi izatea gehiengoaren jabe balitz bezala. 2004ko aurrekontua bakarka onartu izana dugu gertaerarik esanguratsuen, Udalbatzarrak aho batez adierazitako borondatearen gainetik inposatu baitzuen; nahiz eta legez hala jokatu ahal izan, ez da halakoetara jo behar etika demokratikoaren oinarrien arabera eta demokrazia lokala ahuldu gabe gobernatu nahi bada. Alkateak udal batzarkideen botoen %63 jaso zituen, eta, handik urtebetera, Udalbatzar beraren %60ak alkateak berak eskatutako konfiantza ukatu zion.

Bestalde, alkateak behin baino gehiagotan apurtu du 2003.eko uztailaren 3an onarturiko konpromisoa, aktan jasotzen den moduan, honela adierazi zuen: "berdinketarik izan daitekeela susmatuz gero, gaia ez dut bozka gai jarriko, ez dut kalitateko botorik erabiliko, beraz, aztergai beste bilkuraren batean aztertu



Donostiako Udala  
Ayuntamiento de San Sebastián

beharko da, Udalbatzarraren gehiengoak ordezkatzeko dituen akordioa lortu arte. Inoiz ez da amarrurik izango". Zoritxarrez, hitza jatea alkatearen jokabidearen osagai ohikoa izateraino heldu da.

Mozio bidez osoko bilkuran onarturiko akordioak behin eta berriro hausten dituzte udal gobernuaren eta alkatearen gustukoak ez badira. Gauza jakina da mozioak ez direla legez nahitaez betebeharrekoak; hala balitz, auzitegiek ebatzi beharreko ustezko prebarikazio gertaeren aurrean geundeke, baina hori ez da kontua. Baina etika demokratikoa irizpide erabilia, begi bistan dago, guretzat, behintzat, Udalbatzarrak adierazitako borondatea, herritarren borondatearen adierazpiderik goren moduan, beti errespetatu beharko dela. Gobernuak hainbat eta hainbat udalbatzarraren erabaki ez du bete. Hargatik diogu gobernugintzan jarduteko estiloak eta formak defizit demokratiko nabarmena dutela.

Ildo horretatik, guztiz tamalgarri deritzogu alkatearen ukoari, ez duelako onartu Udalbatzarraren lehendakaritza etengabe bereganatzea zinegotziek aukeraturiko zinegotzi baten eskuetan etengabe jartzea. Bi lege aukeren artean, hau da, betiko delegatzea edo ez delegatzea, alkateak Udalbatzarraren borondateari bizkar ematea erabaki zuen, eskura duela, legez, guztiz bestela jokatzeko.

Beste zerbait beharrezkoren hutsa ere nabaritzen dugu, batez ere gehiengoaren gobernuak edukitzean ez denean: alkatearen eta udal gobernuaren jarrera integratzailea, adostasunezkoa, akordioa eta elkar hartzea bideratzearen aldekoa. Nahi izatekoa litzateke alkateak eta gobernuak beste estilo, beste jokabide berri bati ekitea, oinarri dituela Udalbatzaren nahiak errespetatzea eta gobernu ardurak jarrera zabal eta itunzalez, gardentasunez eta errespetuz betetzea. Elkarrizketa eta komunikazioa oinarri hartzen dituen jarrera.

Udalbatzarrean ordezkaturik dagoen hiriaren pluralismo politikoa bere egingo duen jarreraren eta estiloaren eza nabaritzen dugu. Gutako batzuen iritziz, "politikan edozerk ez du balio" eta, hargatik, ezin onartuzko gertatzen zaigu oposizioaren iritzi eta proposamen legitimoek gehiegitan jasaten duten manipulazioa. Gure ustez, ez du errespeturik erakusten eta baztertzaila da, ez

10



Donostiako Udala  
Ayuntamiento de San Sebastián

da batere integratzailea, herritarren interesa norberaren ondare bihurtzeko nahia, hiriaren interesak norberarekin identifikatuta, donostiarrak ordezkatzeko dituzten besteen jarrera legitimoen aurka.

Udalaren barruko harreman politikoak konfiantza eta komunikazio giroan gauzatu ahal izateko, ona litzateke "edo nirekin zaude edo Donostiaren kontra zaude" maxima baztertzailea, azken urte eta erdi honetan bai alkateak bai udal gobernuak hainbestetan erabili dutena, betiko desagertuko balitz, eta benetan onartuko balute Donostia denok garela eta denoi interesatzen zaigula gure hiriak hobera egitea. Ez diogu inori eskatzen gure irizpideekin bat etortzeko, baina errespetua merezi eta eskatzen dugu.

Bestalde, nabarmen utzi nahi dut alkateak erakundeekin harreman normalizatu, emankor eta gatazkarik gabeak izateko duen gaitasun falta, oso kezkatuta gaitu eta. Hori frogatzeko nahikoa da ikustea zer harreman izan dituen azken urte eta erdian Estatuko administrazioarekin, Eusko Jaurlaritzarekin eta Diputazioarekin, Donostiakoaren kolore bereko udalen batekin izandakoak gogora ez ekartzeagatik. Horrelako harremanak ez dira eraginkorrak hiriaren interesak defendatzeko, eta hortik gure kezka. Alkateak gainontzeko erakundeekin dituen harremanetan eskatu eta eskatu besterik ez du egiten, ez du ezer partekatzen, eta, gainera, askotan komunikabideen bitartez egiten ditu eskaerak, "sukalde lan"ik egin gabe. Badirudi egunkarietako tituluak eta propaganda besterik ez zaiola interesatzen. San Telmo dugu azken adibidea.

Azken buruan, alkateak gatazka eta adostasun falta erakundeekiko harremanen estilo bihurtu izana ez da eraginkorra, are gehiago, kaltegarria da hiriaren interesetarako. Donostiak erakundeen arteko lankidetzara behar du eta, horretarako, errespetua eta sukalde lana behar dira, batez ere. Horren falta nabaritzen dugu. Inbidia sartzeko zaigu, inbidia sana baina, Bilbok azken aldi honetan jaso dituen nazioarteko sarrietako bat, Veneziako Arkitektura Biurtekoak emana, hiri hori hirigintza aldetik biziberritzeko erakundeek eta enpresa publikoek elkarrekin egin duten lanagatik eman zaiola ikustean. Ze urruti dagoen gure udala erakundeen artean horrelako hartu-emanak bultzatu ahal izatetik!



Donostiako Udala  
Ayuntamiento de San Sebastián

Ez dut atal hau bukatu nahi zaborren kudeaketak sortzen dituen arazoak aipatu gabe, labur bada ere. Gai hori dela-eta alkateak duen jarrera ez dator bat, gure ustez, hiriko agintaririk gorenarengan espero izatekoa den ardurarekin, are gehiago, hiri horrek arazo handiak baditu berak sortzen dituen zaborrekin. 2006. urtea hementxe daukagu eta urte horretako urtarrilaren 1etik aurrera San Markosko zabortegeiak urratu egingo ditu inguruneari buruzko Europako jarraibideak.

Maiz eztabaidatu dugu gaia Udalbatzarrean, eta argi gelditu da alkatearen jarrera zein den. Joan den urriaren 26ko Udalbatzarrean azaldu zuen jarrera argia eta irmoa izan zen. Erraustegia Donostian ez dela jarriko esan zuen. Gainera, behin eta berriz leporatzen digu, niri eta nire partiduari, EAJri, Donostian jartzea inposatu dugula. Inposaketa izan dela dio, erraustegia Aritzetan jartzeko erabakia San Markosko Mankomunitatean PSE, EAJ, EA eta PP talde politikoek hartu zutela ondo dakien arren.

Beno, bada, neuk ere argi eta irmo erantzungo diot. Alderdi Sozialista egiten ari den jokoak —hau da, batetik Plan Integralaren alde agertzea eta, bestetik, erasandako udaletan dituen ordezkarien bitartez erraustegiaren aurka agertzea— amaitu behar du. Alderdi Sozialistak erakundeetan dituen ordezkariak sortutako arazoa konpondu behar du. Izan ere, erabaki bat hartzen dute foro batean eta, gero, haiek bere erabaki hori bera blokeatzen dute beren ardurapeko udaletan. San Markosko Mankomunitateko talde sozialistak arazoa konpondu behar du eta, horretarako, gehiengoa duen talde bati dagokion erantzukizuna bere egin behar du. Erabiltzen duten argudio “teknikoak”(!), gutxi gorabehera honela dioenak, ez baitu balio: “arazoa konpon diezadatela, nire udalerria ezertarako ere ukitu gabe; bitartean, hauteskundeetarako korriturik irabazten badut, nazionalistak ‘egurtzen’ ditudala, ezin hobeto”.

Dei egiten diot alkatearen erantzukizunari, hiriaren etorkizunerako hain garrantzitsua den arazo bati, San Markosko Mankomunitatean onartutako Plan Integrala ezartzeari, probetxu politikoa ateratzeari utz diezaion.



Donostiako Udala  
Ayuntamiento de San Sebastián

### **Jarduera ildoen aurrerakina. Adostasunerako proposamena.**

Bukatzeko, elkar hartzeko deia eta eskaintza egin nahi dut. Alkate jauna, berriro ere esaten dizut prest nagoela elkar aditzea bilatzeko, irailean helarazi nizun gobernu akordiorako eskaintzan adierazi nizun moduan. Atrebentzia ez bada, elkarrizketarako eta komunikaziorako bideak irekitzea aholkatuko nizuke, akordioak lortzeko beharrezko den konfiantza giroa sortu ahal izateko, tranparik gabe, zintzotasunez eta errespetuz, are ados ez gaudenean ere, behin eta berriz zalantzan jarri gabe denok dugun legitimitatea eta denoi berez aitortu behar zaigun asmo ona. Hiriak gu ados jartzea behar du. Hiriak udal talde eta erakundeen arteko dinamika integratzaileak behar ditu. Berriz ere esango dizut: prest gaituzu.

Eta berriz ere esaten dizut prest gaudela, baita ere, aurrekontuei buruzko akordioa lortzen saiatzeko, baina gaia serio hartuta, Udalak aurrekontu politika eraginkor eta zorrotzagoa izan dezan. Irailean oinarri proposamen bat helarazi nizun, zeregin horretarako balio dezakeena. Zuk dakizunez, aurrekontuei buruz akordio batera iritsi ahal izateko, egokia litzateke, gure ikuspegitik, 2004ko aurrekontua inposatzeko erabili zenuen legezko trikimailua legealdi honi gelditzen zaion denboran berriz ere ez erabiltzeko hitza emango bazenu. Horri lotuta, aurrekontu horretatik oraindik gauzatu gabe dagoena, zeroan jarri beharko litzateke kontagailuan.

Ona litzateke, baita ere, Udalbatzarrak hartutako erabakiak beteko bazenu, legea ez urratzea izanda muga bakarra, eta etorkizunean ere betetzeko hitza emango bazenu. Leialtasun hori gabe, eta Udalbatzarraren erabakiak gauzatzeko asmo nabarmena dagoela egiaztatu gabe, zaila da beste akordio batzuk lortzeko behar den konfiantza eraikitzea.





Bukatzeke, EAJ-EA taldearen iritziz udalak, aurrekontuko dirua izendatuz-eta, bultzatu eta gidatu beharko lituzkeen jarduera ildoak aipatuko ditut, laburbilduta:

1. Etxebizitza. Donostian, biztanleen %15ek baino ez du nahiko baliabiderik merkatu librean etxebizitza bat erosteko. Gainontzeko %85etik, batzuek baino ez dituzte betetzen babes ofizialeko etxe bat eskuratzeko baldintzak. %85 horren eskaerari erantzuna eman behar zaio, babes ofizialeko eta tasatutako etxe gehiago eginez eta prezioa kontrolatua duten etxe libreak sortuz. Etxebizitzen eskaintza dela eta, batez ere, gazteak izan behar dira kontuan. Etxebizitza politika berri integrala behar dugu, beraz, lurzoruairen prezioa kontrolatzeko plan berezi batez baliatzen dena. Eta, horretarako, legezko baliabide guztiak erabili beharko dira, baina, batez ere, desjabetzea. Lur ondare publiko bat sortu beharko da, gainera, eta horretarako lurzoruairen salmentak nahiz lurrazal eskubideek emandako sarrera guztiak etxebizitzarako erabili beharko dira. Bestalde, gazteentzako etxebizitza plan bat onartzea proposatzen dugu. Sustapen publikoko etxebizitzen %75 hogeita hamabost urtetik beherakoentzat gordetzea litzateke haren ardatz nagusia.

Etxebizitzaren arazoa konpontzeko, gure hirian behintzat, euskal erakunde guztien planifikazio bateratua behar da, Donostialde osoa kontuan izaten duena, eta sustapen publikoko etxebizitzak eskatu eta esleitzeko sistemak ere bateratu behar dira.

2. Auzoak eraberritzeko ohiz kanpoko programa. Oraindik ere egiturazko gabeziak dituzten auzoen alde bereizketa positiboko neurriak hartzeko balio izango du.

3. Berdintasun eta elkartasun programak garatzea, bereizkeriaren kontrako politiken ikuspegi global eta zeharkako batetik.

4. San Telmo garatzea.

5. Karlos I.aren hiribideko eta Iztueta kaleko bidezubiak kentzea.




Donostiako Udala  
Ayuntamiento de San Sebastián

6. Garraio publikoa hobetzea eta eraginkorra izan dadin lortzea. Tranbia jartzea.
7. Autobus geltokia eraikitzea geltoki intermodalean, nahikoa den beharizan-programa batekin.
8. Kirol instalazioei eusteko inbertsioak.
9. Miramon Teknologi Parkea handitzean parte hartzea, aurreko urteetan egindakoaren ildotik. Telekomunikazio zerbitzuak erabiltzeko banda zabaleko azpiegiturak hiri osoan azkar zabal daitezen bultzada ematea.
10. Toki erakunde txiki bat sortzea Igeldon.
11. Euskara hirian eta udalean normalizatzeko programak egokitzea.
12. Turismoa sustatzeko politika berezi bat taxutzea eta aurrera eramateko neurriak hartzea.
13. Donostia barrualdean Renfe-ren trenbidea lurrazpiratzeko aukera sakon aztertzea.

Eskerrik asko.

Roman Sudupe





**Donostiako Udala**  
**Ayuntamiento de San Sebastián**


## **DEBATE SOBRE POLÍTICA GENERAL DEL AYUNTAMIENTO DE DONOSTIA**

17 de noviembre de 2004

Intervención de Roman Sudupe, portavoz del grupo  
EAJ/PNV-EA



Zinegotziak - Concejales y Concejales





Donostiako Udala  
Ayuntamiento de San Sebastián

## INTERVENCIÓN DE ROMAN SUDUPE EN EL DEBATE SOBRE POLÍTICA GENERAL DEL AYUNTAMIENTO

Asistimos hoy al primer debate sobre la política general del ayuntamiento. Lo hacemos tras año y medio de andadura municipal. Es ésa una circunstancia que atribuye a este debate una doble función: por una parte, nos corresponde hacer balance y evaluar la acción del gobierno municipal, y, por otra, nos corresponde avanzar propuestas de líneas de acción para el futuro.

Adelanto que nuestra mirada a la ciudad está revestida de preocupación, y la mirada a la acción de la alcaldía y del gobierno municipal es una mirada crítica, incluso extraordinariamente crítica en lo que a su estilo y talante se refiere.

Es evidente que las cosas en este año y medio no han ido bien en el ayuntamiento. El estilo de gobierno de la alcaldía -obviamente me refiero al estilo *practicado*, que es bien distinto al estilo *predicado*- se ha caracterizado por la negación del diálogo y la incapacidad de alcanzar acuerdos y consensos. Así lo demuestran los hechos de estos dieciocho meses, y eso es un problema para la ciudad. Tenemos la convicción de que estamos asistiendo al agotamiento de un ciclo, porque el talante de conflicto que permanentemente exhibe la alcaldía es un talante del viejo estilo, talante que también aquí terminará por formar parte del pasado.



Donostiako Udala  
Ayuntamiento de San Sebastián

## Una mirada a la ciudad

A modo de punto de partida es obligado empezar por señalar que nuestra ciudad es hoy, en general, una ciudad más atractiva que hace algunos años. Si comparamos la situación actual con la de hace algunos años, es evidente que las cosas han mejorado. Tenemos una ciudad con elevada calidad de vida, cómoda para vivir. A ello ha contribuido, sin duda, la acción de los diferentes gobiernos municipales de estos años.

